

Funtsezko Baliabideak

Gure aplikazioa interneten bidez erabilia izango da, horretarako **wifi** bat kontratatu beharko dugu. Egunero lan egiteko erabiliko dugu, aplikazioan edo web orrialdean arazo baten bat egonez gero konpondu ahal izateko. Horregatik gure wifi zerbitzua denbora guztian konektatuta egon behar du, edozein arazo edo gestio egin ahal izateko.



Gainera, aplikazioa eta web-orria sarean mantentzea gure kabuz oso garestia izango zenez, **hosting** zerbitzu bat kontratatuko dugu. Zerbitzu honek gure aplikazioa bezero guztiei heltzea ahalbidetuko du. Modu honetan sarean mantenduko da denbora osoan.

Erabiliko dugun ekipoa ez dugu erosi behar, guztiok ordengailuak ditugunez bakarrik mantendu eta eguneratu beharko ditugu, antibirusak erabiliz, gaurkotuz... hortaz gure gastuak minimoak izango dira.

Badakigu nola egin nahi dugun gure aplikazioaren funtzionamendua, baina aplikazioa martxan jartzeko, beste pertsona batzuk kontratatuko ditugu, aplikazioa modu egokian programatzeko eta sarean ipintzeko.



Lehen azaldu dugun bezala **eguneratuta** izango dugu aplikazioa. Horretarako programadorea kontratatuko dugu, aplikazioa eguneratzeko .

Hasierako ekarpena 500€-koa izango da. Bazkideen artean jarriko dugu hasierako dirua (100€ bakoitza lehenengo hilean eta hurrengo 5-6 hilabetetan 20-30€). Baina lehenengo hilabetetan irabazitakoa nahikoa bada, lortutako etekinekin hasiko gara aplikazioa aurrera eramaten.

Gure egitasmoa osatzen dugun pertsonok abilezi ezberdinak ditugu. Haietako bi, teknologiarekin ondo moldatzen dira, beraz haiek arduratuko dira aplikazioa martxan jartzen eta eguneratuta izaten. Beste neska bat eta biok, ekonomiaren arloan ondo moldatzen gara, eta hortaz, gu izango gara erosketen eta salmenten jabe. Azkenik, gure azken laguna, jendearekin ondo moldatzen da, beraz, bera izango da bezeroekin komunikatuko dena.